



Amezketako hiru gunetan 190 etxebizitza eraikiko dituzte, 48 tasatuak



Larraitz Biden hasiko dituzte
aurten eraikuntza lanak. n.u.

LEHEN FASEA ▶ Larraitz Biden 38
etxebizitza egingo dituzte eta lanak
aurten hasia aurreikusi dute

INFORMAZIOA ▶ Udalak bilerara
deitu ditu herritarrek gaur
20:00etan balio anitzeko gelan ▶ 5



Arrautzaren Festak eta Goxua Azokak jende ugari erakarri dute herrira

TOLOSA ▶ Iragan hilaren 5etik 8ra 1.400 lagun baino gehiago
bildu ditu Zerkausian Arrautzaren Festak. «Herrian geratu direnei
eskaintza eman eta kanpoko turistak bertaratzeko» balio izan
duela azpimarratu du Udalak. HITZA ▶ 2



TOLOSA ▶

**ETAren
ustezko zulo
bat aurkitu
dute**

Guardia Zibilak
Aldaba Txiki auzoan
topatu zuen zuloa
hutsik zegoen ▶ 5

TOLOSALDEA ▶

**Sinadura
bilketa hasi
du ezker
abertzaleak**

«Demokrazioaren
alde dagoen herritar
orori» sinatzeko deia
egiten diete ▶ 3

ELDUAIN ▶

**Patxaran Baines
Master-eko finalean
dago Zeberio II.a**

Agirrezabalarekin batera igaro da ▶ 6

GASTRONOMIA ▶

1.400 lagun baino gehiago bildu ditu Arrautzaren Festak

Udalak jendearen harrera nabarmendu du; jai egunetan herrian geratu direnei eskaintza eman eta kanpoko jendea erakarri duela azpimarratu du alkateak

INÍGO TERRADILLOS

Arrakastatsutzat jo dute hila-ren Setik 8ra Tolosako Udalak antolaturiko Arrautzaren Festa, izan ere, 1.400 pertsona baino gehiago bildu ditu Zerkausian. Ekitaldi hau Tolosa Gourmet ekimenaren baitan egin dute. «herrian zehar egiten diren ekitaldi gastronomikoak bultzatu asmoz».

Izandako harrerarekin harrituta geratu dira antolatzaileek ere, ez baitzuten uste hain azkar lekurik gabe geratuko zirenik, ostegunerako erreserbak egiteko aukera bukatu baitzen. Parte hartzeko aukera izan du tenen artean Tolosako eta Tolosaldeko biztanleak izan dira ugariena, baina Euskal Herri osoetik etorri da jendea, baita Espainiatik eta Herrialde Katalanetatik ere.

Arrautzaren Festak azokan produktu garrantzitsuenetakoa den arrautza omen du. Horretarako, Zerkausian Tolosako 11 jatetxetako sukaldariek arrautza osagai zela eginko menuak prestatu dituzte. Bazkari eta aforiez gain, hitzaldia, txotxongilo tailerra eta tor-

tila erraldoia egin dute, «guztiak arrakasta handiarekin». Halaber, larunbatean Tolosa Goxuaren XI. edizioa ere izan zen eta 8.000 lagun inguru gerturatu ziren gozoak dastatzera.

Udala «oso gustura»

Tolosako Udala gustura azaldu da Arrautzaren Festak izan duen arrakastarekin. Jokin Beldarratz alkateak hiru puntu azpimarratu ditu: «Alde batetik, Tolosa Gourmet ekimena indartzeko balio izan du; bestalde, Tolosako ostalaritza osoak parte hartu duela garrantzitsua da; azkenik, aipagarria da, herrian bertan geratu direnei eskaintza emateaz gain, kanpokoak Tolosara hurbiltzeko balio izan duela».

Bestalde, «Tolosako feriek beti izan duen tradizioarekin jarraituz», etzitik igandera arte Usabalen egingo den Gipuzko Encounter, informatika topaketa azpimarratu nahi izan du alkateak: «Euskal Herri osoetik etorriko dira, gazteak batik bat, eta azken baliabide eta teknologiak erabiltzeko aukera izan dute».



Arrautzaren Festako une bat. NOTICIAS DE GIPUZKOA



Tortila erraldoiak ikusmin handia sortu zuen. HITZA



Behoko bietan, Tolosa Goxuako irudiak. P. ALBERDI

AZOKA ▶

Jende ugari larunbateko ohiko azokan ere

Trianguloan jarri zituzten postuak; Berdura plazak urteko itxura onena hartu du

PABLO ALBERDI

Goizean fresko, baina eguzkiak egin zuen ateraldia, hainbeste egun eurietan egin eta gero, larunbateko azoka egunean. Azken azoka eguna berezia izan zen, Tolosa Goxua azoka eta Arrautzaren Festa ere bazirelako Tolosan. Hori dela eta, ohikoa baino jende gehiago izan zen goizeko lehen orduetatik, bai bertakoak, bai eta Tolosa bisitatzera etorri zirenak ere.

Baserritarren postuak Zerkausitik Triangulora pasa ziren beste behin; bertan, Nafarroako 20-25 kilo ziza ikusi genituen. Horretaz gain, berdura, leka, fruta edota fruitu lehorren eskaintza ugaria eta kalitatezkoa. Bestalde, Berdura plaza ari da urteko itxurari onena hartzen: era guztietako piperrak, tomateak, marrubiak, bainak...

LARUNBATEKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
Berdura plaza		
Begonia	1,20	-
Geranioa	2,00	-
Salbia	1,00	1,20
Erromeroa	4,00	6,00
Xarbota	4,00	6,00

Bertako produktuak

Ziza	48,00	60,00
Mizpiradia	3,00	-
Errezil sagarra	0,60	8,00
Kiwiua	3,00	-
Kalabaza	1,50	3,00
Lekak	2,50	3,50
Azalorea	1,00	-
Arrautzak	1,10	2,40
Irasagarra	3,00	6,00
Gazta berria	19,00	-
Ardigazta	14,00	18,00
Behigazta	7,00	7,50

Produktu ekologikoak

Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00
Kalabaza	1,60	3,04
Baraxuria	1,60	6,00
Azenarioa	2,00	2,50
Dilistak	2,40	-
Tipula	1,75	2,00
Zerba	2,00	-
Arrautzak	3,50	-
Mermelada	3,00	3,60



TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

Gobernu Batzarrak 2007.eko otsailaren 5ean egindako bilkuran, bestek beste, honakoa erabaki zuen: G1-2135ean, Tolosako Amartzotz auzoaren eta Txaramaren arteko lotura hobetzeko eta bidegorria eraikitzeko proiektua gauzatzeko ukitzen diren ondasun eta eskubiden okupazioa presakotzat deklaratzeko.

Derrigorrezko desjabetzapenaren Legearen 52. artikuluan ezarritako aplikatuz, honako hau erabaki da: a) Okupatu aurreko akta 2007eko apirilaren 27an egingo da, eguerdiko 13:00etan, Tolosako Udalarekin (Hirigintza - 4. soilarua) eta, behar izanez gero, lekura bertara ere joan ahal izango da, interesatuak eskatzen badu.

b) Okupatu aurreko aktak egiteko egintzara joateko dei egitea finkaren titularrari edo, hala badagokio, haren eskubidedunei. Beraiek joan beharko dute, edo beren ordez behar bezala baimendutako pertsonaren bat, haien izenean aritzeko, nor diren adierazten duten agiriak dituztela. Nahi izanez gero, gainera, eta beraiek ordainduta, peritudo notario bat ere eraman dezakete.

c) Jabeek eta eragindakoek nahi dituzten adierazpen eta datuak jaso arazi ahal izango dituzte, eragindako eskubideak, beren titulua eta haien balioa zehazteko badira.

d) Egintzara ez agertzeak ez du egintza bertan behera utziko.

e) Interesatu guztiek, bai eta eragindako ondasunekiko eskubide errealeko edo interes ekonomikoaren titular izanik aipatu gabe utzi diren pertsonen ere, alegazioak egiteko aukera izango dute, alde aurreko akta egiteko eguna bitartean. Alegazioak idatzi bidali beharko dituzte Tolosako Udalera eta horien helburu bakarra zera izango da, alegia, desjabetuko diren ondasunen zerrendatzerakoan akatsik-edo egin bada, haien konpontzea.

Hauetara desjabetuko eta okupazio aurreko aktan agertuko diren ondasunak:

- 1. LURZATIA:

JABEA: Solarpap, S.A.

HELBIDEA: Laskorain, 14-b

AZALERA: ... 82 m²

MUGAK: IPARRALDEAN: G1-2135 errepeidea.

HEGOALDEAN, EKIALDEAN ETA MENDEBALDEAN: gainerako lurzattia.

ERREGISTROKO DATUAK: 2136 zk.dun finka, (1811 tomoa, 288 liburua, 155 orrialdea).

KARGAK: 1.-Hipoteka, Banco Santander Central Hispano, SA-ren alde (19. Inskripzioa).

2.-Hipoteka, Banco de Vasconia, SA-ren alde (19. Inskripzioa)

KATASTROKO ERREFERENTZIA: 108 poligonoa, 4. Partzela

HIRIGINTZA SAILKAPENA: Lurzoru eta urbanizagarria

Tolosan, 2007ko martxoaren 28an. ALKATEA.

POLITIKA ▶

Hauteskundeetarako sinadura bilketa hasi du ezker abertzaleak

«Demokraziaren alde dagoen orori» luzatu diete deia

ESTI EZEIZA

Udal eta Foru Hauteskundeak gero eta gertuago diren honetan, ezker abertzaleak hauetara agertzeko konpromezua berretsiz, hori ahalbidetzeko bitarteko guztiak erabiliko dituela adierazi du.

Alderdien legea dela eta, aurreko lau urteetan alderdi politiko honen hutsunea izan da instituzioetan. Hori dela eta, azken urteetako egoera «antidemokratiko honi buelta emateko asmoz» hauteskundeetara aurkezteko asmo trinkoa erakutsi dute ezker abertzalekoek. Plataforma gisa, Abertzale Sozialistak izenpean eskualdeko udalerrri gehienetan aurkeztuko dute ordezkariak. Hau posible izateko, eta ekimenak aurrera egiteko herritarren sinadurak behar dituzte.

Sinadura bilketa honek Udalerri zein Batzar Nagusietarako ezker abertzalearen presen-



Tolosako ezker abertzaleak atzo egindako agerraldiko une bat. E. EZEIZA

tziazen beharra aldarrikatzea du helburu. «Izan ere, demokrazia sentitzen den orori dei egiten diogu, ahalegin bat egin dezaten ezker abertzaleak erakundeetan legitimoa duen lekua izan dezan» adierazi zuen atzo Antton Izagirre, Tolosako alkate ohiak. Orohar, herri bakoitzeko populazioaren %1ak sinatu beharra dauka eskaera. Hala ere, ahalik eta jende

gehienak sinatzea du ezker abertzaleak helburu, «horrela errazagoa izango baita Espainiar estatuaren borondatea iraultzea».

Bestalde, Batzar Nagusietarako eskualdeko zenbait herrietan ezin izan zutela atzo sinadura bilketarekin hasi salatu du ezker abertzaleak, Gipuzkoako Foru Aldundiak ez baitittu prestatuta sinatzeko orriak.

DUATLOIAK ▶

Patxi Urizar eta Itxaso Leunda lehen postuetan

Atsedendialdiaren ondoren, hurrengo proba asteburu honetan izango da, Gernikan

ERREDAKZIOA

Iragan hilaren 31n eta apirilaren 1ean jokatu zituzten distantzia motzean Durangoko eta Azkoitiako duatloiak (8-40-4 distantzia). Bertan aurreko asteetan ere punta puntan ibili ziren eskualdeko bi kirolari lehiatu ziren: Patxi Urizar eta Itsaso Leunda. Hauek Euskal Herriko duatloi zirkuituetako lehendabiziko postuetan dabilta.

Lehen hitzordua Durangon izan zen arratsaldean, 170 partaide, eta bertan guztien artean azkarrena Patxi Urizar (Kraff-Atletiko) izan zen. Sprint estu baten ondoren gailendu zelarik. Txapela ikusgarria izan zen larunbatekoa, izan ere, Mikel Elgezabal txirindulari ohiari irabaztea lortu baitzuen. Bi minutu beranduago iritsi zen bere anaia Luis Mari Urizar (Kraff-Atletiko) 6. postuan. Tolosaldeko Triatloi Taldeko kideei dago-kionez, bertaratutako bakarra Aitor Elduaen izan zen, hiru urte eta gero berriro ekin diolarik. Hau, 89. iritsi zen helmugarra. Hori mutiletan, Nesketan

berri, Itsaso Leunda (Garratiz K.E) hirugarren iritsi zen eta postu horrek 23 urte azpikako mailan lehen postua erdiesteko balio izan zion.

Hurrengo egunean, hau da, igandean, goizean Azkoitian zuten hitzordua, 157 pertsonak hartu zuten parte. Bertan Patxi Urizar (Kraff-Atletiko) hirugarren iritsi zen eta Itsaso Leunda (Garratiz K.E) bosgarren. Lasterketa honetan ere postu hau lortzeko 23 urte azpikoen mailan garaitzeko balio izan zion. 24 ordu baino gutxiagoan bi proba hauek gauzatu behar izan zituzten eskualdekoek, eta bietan ere postu onak lortu zituzten. TTT-koak ere bertan izan ziren. Hala, Alberto Vaquero 42. geratu zen, Ibon Gonzalez 45., Ion Marin 90. eta Xabier Beldarrain 105.

Pasa den asteburuko atsedendialdiaren ondoren aste honetan beste proba bat jokatuko dute Gernikan. Hilaren 21ean berriz, Arrigorriagan izango dira, distantzia luzeko Euskadiko Txapelketa jokatu-ko baita bertan, 14-57-7-kilometroko ibilbidean.

SINADURA BILKETA ▶ HERRIZ HERRI

TOLOSA

Tokia eta ordua. 10:00etatik 12:00etara udaletxean egin ahalko da eta 09:30etik 13:30era Notaritzan.

Astezkenetan, notaritzan 17:00etatik 19:00etara. **Epea.** Hilaren 18ra arte.

AMEZKETA

Ordua eta tokia. Goizetan egin ahal da udaletxean. **Epea.** Hilaren 18ra arte.

ZIZURKIL

Ordua eta tokia. 08:30etik 14:30era udaletxean. Bihar eta etzi 16:30etik 18:30era. **Epea.** Hilaren 20ra arte.

VILLABONA

Ordua eta tokia. 08:00etik 14:00etara udaletxean. Gaur eta etzi 17:00etatik 19:00etara. **Epea.** Hilaren 20ra arte.

ADUNA

Ordua eta tokia. 09:00etatik 15:00etara udaletxean. **Epea.** Gaur, bihar eta etzi.

IBARRA

Ordua eta tokia. 07:00etatik 14:30era udaletxean. Bihar

eta hilaren 17an, 08:30etik 20:30era, eta apirilaren 14an 10:30etik 13:30era.

ALEGIA

Ordua eta tokia. 09:00etatik 14:00etara udaletxean. Bihar eta etzi 18:00etatik 20:00etara. Larunbatean, hilak 14, 11:00etatik 13:00etara. **Epea.** Hilaren 18ra arte.

ANOETA

Ordua eta tokia. 12:00etatik 15:00etara udaletxean. Bihar eta larunbatean, hilak 14, 16:00etatik 18:00etara.

IRURRA

Ordua eta tokia. 09:00etatik 14:00etara udaletxean. Igandean berriz, hilak 15, 16:00etatik 19:00etara.

ORENDAIN

Ordua eta tokia. Gaur, 09:30etik 16:30era, etzi, 12:00etatik 16:30era eta igandean, hilak 15, 11:00etatik 13:00etara.

IKAZTEGIETA

Ordua eta tokia. 09:00etatik 15:00etara udaletxean.

Notaritzan berriz, 09:30etik 13:30era. Asteazkenetan 17:00etatik 19:00etara ere bai.

ELDUAIEN

Ordua eta tokia. 09:00etatik 14:00etara udaletxean. Hilaren 17an 16:00etatik 18:00etara.

BELAUNTZA

Ordua eta tokia. 09:30etik 13:30era Notaritzan. Asteazkenetan berriz, 17:00etatik 19:00etara.

LEABURU-TXARAMA

Ordua eta tokia. Astelehen eta asteazkenetan 09:00etatik 14:30era. Ostegunetan 18:00etatik 20:00etara.

LIZARTZA

Ordua eta tokia. 09:00etatik 14:00etara egin ahalko da udaletxean.

ASTEASU

Ordua eta tokia. Goizetan egin ahalko da udaletxean. Gaur eta hilaren 18an 17:00etatik 18:30era ere bai. Hilaren 15ean berriz, 11:00etatik 14:00etara. **Epea.** Hilaren 18ra arte.

TOLOSA ▶

Erretzeari uzteko astean behineko tratamendua

Osasun eta Gizarte zerbitzuetako sailak erretzeari uzteko saio batzuk antolatuko ditu. Hauek hilaren 25ean hasiko dira, eta ekainiaren 6ra bitartean astero izango dira. Jardunaldiak Kultur Etxean izango dira, 15:00etik 16:30era eta 16:45etik 18:15era. Izen-ematea hilaren 20ra arte egin ahal izango da udaletxeko osasun eta gizarte zerbitzuetan.

TOLOSA ▶

Pirritx eta Porrotx ikusteko sarrerak salgai dira

Laskorain ikastola bere 40. urteurrena ospatzen ari da aurten. Hori dela eta zenbait ekitaldi antolatuko dituzte. Horien artean, Pirritx eta Porrotxen emanaldia izango da hilaren 21ean, 18:00etatik aurrera, Leidor antzokian. Sarrerak salgai dira jada Laskorain ikastolan bertan eta Ibarako Uzturpen. Baita ere, Anoetako eta Irurako ikastoletako idazkaritzetan.

iragarki laburrak ▶

LANA
Gidaria. Erakunde publikoetarako gidariak behar dira. Interesatuak deitu 943 44 48 66ra.
Harreragilea. Udaletxeetarako harreragileak behar dira. Telefono zenbakia: 943 44 48 66.
Etxeko lanak. Etxeko lanak egiteko

emakumea behar da. Goizeko 10:30etik 14:30era arte. Interesatuak deitu 943 65 30 34ra astelehenean ostrihalera.
Tabernaria. Tabernaria behar da. Telefonoa: 615 78 90 06.
Sukaldaria. Villabonan sukaldaria behar da. Deitu 943 69 19 33ra.

ADUNA ▶

Epea luzatu dute antzerki lehiaketarako

Poltxikoko Antzerki Lehiaketako antolatzaileek —tartean Asvineneak— parte-hartzaileek beren lanak bidaltzeko epea luzatu dute hilaren 16ra arte. Antolatzaileek, gaur egunera arte dagoen partidetza nabarmena dela ikusi arren, epea luzatu dute. Interesadunek argibideak www.asvinenea.com helbidean edo 665 738081 eta 943 420745 telefono zenbakietan jaso daitezke.

ANOETA ▶

Santillana del Mar herrira bidaia Alkartasunarekin

Promozio bidaia egingo dute Alkartasuna Biltokiko kideek hilaren 25ean. Santillana del Mar (Kantabria, Espainia) herrira joango dira, 08:00etan abiatuta. Gosaria, erakustaldi promozionala, bazkaria eta dantzaldia izango dute. Bidaia guztiak 6 euro balio ditu. Interesa duenak biltokian bertan jaso dezake informazio gehiago Manuel Odriozola lehendakariaren eskutik, 18:30etik aurrera.

AIZTONDO ▶

Zaragozara bidaia jubilatuentzat

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak jubilatuentzat bidaia antolatu du. Mankomunitateak osatzen duten herrietako jubilatuei zuzenduta dago irteera. Zaragozara (Espainia) antolatu dute bidaia, hilaren 25ean. Izena emateko epea hilaren 16an amaituko da, astelehenean. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateko bulegoetan egin daiteke edo 943 693930 telefono zenbakian.

XABAT URKOLA ▶ PIANO IKASLEA

«Emitza txarragoa lortuko nuela uste nuen»

Xabat Urkola anoetarrak Donostiako XIV. Nazioarteko Piano Lehiaketan bigarren aipamena lortu du



I. GARCIA

ZIZURKIL ▶ GIZARTEA

Konpostagailuak banatuko ditu Mankomunitateak

Konpostaren inguruko ikastaroa egiteko aukera izango dute

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Mankomunitateak Zizurkilgo Udalarekin lankidetzan sustaturiko konpostaje kanpainak konpostagailuak banatuko ditu herriko bizilagunen artean, horretan interesaturik daudenean etxeko, baratzeko eta lorategietako hondakin organikoak metatzeko aukera izan dezaten. Behin konposta egindakoan hortik ateratzen den materiala landareak ongarrizatzeko erabiliko dute.

Lurzati bat izan eta ekimen honetan parte hartu nahi duten zizurkildarrek konposta egiteko esku-liburu bat jasotzeaz gain, ongarrria egiten ikasteko aukera izango dute. Honetan interesaturik daude-

nek egun bat hautatu beharko dute ikastarora joateko, ikasgelan ez baitira 50 lagun baino gehiago sartzen. Hauek dira aukerak: hilaren 16, 17, 18, 24 eta 25ean, 19:00etan Fraison, eta hilaren 21ean 11:00etan Tolosako Usabal auzoko Laskorain Ikastolan.

Ikastaro honetan, herriko bizilagunek konpostajearen oinarriak eta hainbat datu praktikiko ikasiko dituzte. Era honetan, konposta egiteko gai diren hondakinen berri emango zaie, hala nola, etxeko organikoak (barazkiak, arrautza azalak edo fruta) eta baratzeetako eta lorategietako organikoak (belarrak, hostoak eta loreak). Ikastaroa amaitutakoan, parte-hartzaileek urtebeteko aholkularitza zerbitzua jasotzeko au-

keria izango dute euren zalan-tzak argitzea.

Konposta egiteko kanpaina honi buruzko informazioa jaso eta bertan parte hartzeko Tolosaldeko Mankomunitatean izena eman nahi duten zizurkildar guztiak, 943 676216 zenbakira dei dezakete edota ondorengo posta elektronikoa erabili: tolosaldea.m@euskalnet.net.

Zizurkilgo Udalak «begi onez» ikusten du baratzak eta lorategiak dituzten herritarren artean konposta egiteko ekimen hau sustatzea eta erabiltzea. Izan ere, «jarrera honek zabor kopurua murrizten du, eta, aldi berean, lur landua aberasten». Horregatik, Udalak zizurkildar guztiak ekimen honetan parte hartzera animatzen ditu biziki.

IMANOL GARCIA

Xabat Urkola anoetarrak Donostiako XIV. Nazioarteko Piano Lehiaketan bigarren aipamena jaso zuen. Loatzo musika eskolako 11 urteko ikasle honek maila handiko lehiaketan parte hartu zuen, Euskal Herriko, Espainiako, Portugalako, Lituaniako eta Ekuadorreko piano-joleekin batera. **Nolakoa irudituz zitzazun lehiaketa?** Politza izan zen. Urrutitik etorritakoak zeuden, Lituaniatik, Ekuadorretik bat... Beste herrialdeetakoek nola jotzen duten ikusteko balio izan zuen. **Gustura lorturiko emaitzarekin?**

Bai, oso gustura. Emitza txarragoa lortuko nuela uste nuen, egindako lana eta gero. **Maila handiko lehiaketa zen.** Bai, nahiko zaila zen. Bi kantu aukeratu behar ziren eta nik Bertiniren eta Aita Donostiaren obrak aukeratu nituen. Urduri nengoen, baina jotzen hasi eta gero, lasaitu nintzen. **Ordu asko ematen dituzu piano aurrean?** Egunean ahal dudana gehiena. Ordubete-edo aritzen naiz eta gero aitak gauean pianoa jartzeko eskatzen dit. **Zel in konpositore gustatzen zaizkizu?** Musika klasikoak gustatzen zait, Mozart eta Beethoven, adibidez.



Higiezin Agentzia

Pablo Gorosabel 40
1. solairua • 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel./faxa: 943 65 55 87
Sakelakoa: 669 368 994

<p>Alegia. Azken bi moduloak, 350 m2koak. Kokapen ezinhobea.</p> <p>Amasa. 124m2ko bi etxebizitza.</p> <p>Egoera oso onean. Altzari eta guzti dituela.</p> <p>Anoeta. Harrizko baserrian 90m2ko etxebizitza salgai.</p> <p>Berritzeko.</p> <p>Belauntza. Pabillioia alokairuan, bulegoak, komunak eta abar.</p> <p>Berastegi. 2 solairuko pabillioia alokairuan, 700 m2 solairuko.</p> <p>Berrobi. Laugarren solairuan etxebizitza salgai. Berritua.</p>	<p>Legorreta. Baserria salgai, lurrekin. Informazio pertsonala.</p> <p>Legorreta. Landa lurren 3 hektarea.</p> <p>Lizartza. Ebe bifamiliar batentzako lurra eta abeltzaintzarako ustiatetarekin.</p> <p>Lizartza. 900m2ko bi modulo salgai. Prezio interesgarria.</p> <p>Irura. San Miguel plaza. Atikoa. 76 m2 erabilgarri.</p> <p>Irura. Etxezarreta; 3 logela, komuna, bainugela, altzariekin, garajea eta trasteleku duen etxebizitza.</p> <p>Tolosa. San Esteban auzunean,</p>	<p>kanpora begirako 100 m2ko etxebizitza salgai. Berritu beharrekoa.</p> <p>Tolosa. San Esteban auzunean, bi gelako etxebizitza, igogailuarekin eta erabat berritua.</p> <p>Tolosa. Ugarran Goenan, baserria berritu beharrekoa. 3 solairuko.</p> <p>Tolosa. San Frantzisko, 75 m2ko atikoa salgai. Eraberritzeko.</p> <p>Tolosa. Pablo Gorosabel, 50 m2ko bulegoak alokairuan edo salmentan.</p> <p>Tolosa. Agintari kalea. Bi logelako etxebizitza. Egongela, sukalde eta komunarekin.</p>	<p>Tolosa. 89 m2ko etxebizitza salgai Zabalarretan. Hiru logela, garajea eta trastelekuarekin.</p> <p>Tolosa. Santa Klaran, 90 m2ko etxebizitza, atzealdean lur sailarekin.</p> <p>Tolosa. Zumalakarregi kalean 160 m2ko etxebizitza. Egoera oso onean.</p> <p>Tolosa. San Frantzisko, 75 m2ko lehenengo solairuan 105 m2ko etxebizitza.</p> <p>Tolosa. Maituna zaharra. Azken garaje ibiak, 30m2tik aurrera. Karga jasogailuekin sartzeko. Lanak laister hasiko dituzte.</p>
--	--	---	--

AMEZKETA ▶ HIRIGINTZA

3 gunetan 190 etxebizitza egingo dituzte

Horietatik 48 tasatuak izango dira; gaur Udalak bilera egingo du herritarrentzat



Larraitz Biden, bata bestearen ondoan eraikiko dituzte; guztira, 38 etxebizitza. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Amezketan 190 etxebizitza egingo diren proiektua onartuta, aurreko bertan hasteko asmoa dute Larraitz Bideko lanekin. Julian Sagastume alkateak esan bezala, «duela urte bat hasteko asmoa zen, baina orain hasiko dira lanak; 2006ko azaroaren 14an diputatuaren kontseiluak legea onetsi zuen, eta urtarrilaren 17an publikatu egin zen». Herritarrek informazio gehiago edo zalantzak argitzeko aukera gaur izango dute, balio anitzeko gelan, 20:00etan.

190 etxebizitza hauetako 38

Larraitz Bidean egingo dituzte, Erreka Txiki atzean, alegia, eta hauetako 12 tasatuak izango dira. Baina, aldi berean, Udala bi hauetakoren jabe da eta «oraindik zehaztu gabe dagoen funtzio soziala emango diogu». Beraz, 10 etxebizitza gehi garaje hauetako zozketan parte hartu ahal izateko baldintza batzuk hartuko dituzte konputan: 2005eko urtarrilaren 1a baino lehen Amezketan errotatua egotea; beste etxebizitza baten jabe ez izatea, eta ez da onartuko mugagabeko errentapena duena; izena emateko epea behin Gipuzkoako Aldiz-

kari Ofizialean argitaratu eta 8 egun izango da.

Diru sarrerak gutxienez 12.000 eurokoa izan beharko da, eta eskriturak sinatzen diren egunetik urte bete baino lehen bertan bizi beharko du. Ordaintzeko orduan, kontratua sinatutakoan %20a pagatu beharko litzateke.

Jauregin eta Ugarten ere bai

Beste etxebizitza guztiak Jauregiko lurretan eta Ugarten egingo dituzte, «baina horiek au-

rrerago egingo dituzte. Jauregiko lurretan 66 etxebizitza egingo dira».

Gaur egungo prezioak ere ezagutzera eman dituzte. Mementuz bi tamainako pisuak daude: 75 m²koak, trastelekua eta garajea barne (azken honen metro kopurua alda daiteke, eroslearen gustura), eta 80 m²koa, trastelekua eta garajearekin. Bietan txikiaren prezioa 151.500 euro gehi BEZa izango litzateke, eta handiarena, berriz, 161.500 gehi BEZa.

Garajeko metro karratuaren

ORDAINKETA

Diru sarrerak gutxienez 12.000 eurokoa behar du eta ordaintzeko, kontratua sinatutakoan %20 ordaindu behar da

prezioa 802'30 eurokoa izango da. Larraitz Bideko etxebizitzak hiru solairutakoak izango dira, sei bloketan banatuta. Informazio gehiago gaur emango dute, 20:00etatik aurrera.

ALEGIA ▶ ABERRI EGUNA

Euskal herritarren nazioa beste behin aldarrikatzen

Plazan bildu ziren eta ekitaldi xume bat egin zuten, idatzi bat irakurriz eta hamaiketakoarekin

ERREDAKZIOA

Ekitaldi «xume» batekin ospatu zuten Alegian Aberri Eguna. Zinegotzi batek jaso zuen ikurrina udaletxeko balkoian, herriko txistularien doinuak entzun bitartean. Ondoren Aitor Sarasola zinegotziak agiri bat irakurri zuen eta gero hamaiketako egin zuten plazan.

Hala zioen idatziak, era laburrean: «Zorionak alegiarrok. Gaur gure eguna da, gure nazioaren eguna. Egun, Euskal Herria estaturik gabeko nazioa da, euskal herritarrok ez gara

nazioarteko itunetan finkatu diren eskubideen jabe».

Hori horrela, «euskal herritarrok ere banantzeko joera izan dugu askotan. Joera hori gainditzen hasteko garaia heldu zaigu. Aro berri bat hasten ari dela antzematen da, eta inoiz baino garrantzitsuagoa da nazio gisa agertzea, baita mundu osoaren aurrean ere. Une berezian gaude. Agerizko zailtasunen gainetik, gatazka betiko gainditu eta eskenatoki demokratikotara eraman ahal gaituen prozesu politikoa sustatzeko borondate soziala in-



Alegiko plazan igandean. HITZA

dartsua da. Gure herriari ukatutako hitza erreskatzeko eta gure burua nazio gisa era instituzionalean egituratzeko eskubidea berreskuratzeko baliatu behar dugu ditugun aukerak. Euskal herritarrok aro berria irekitzera goaz» eta horretarako «garrantzi handia du nazio gisa agertzeak».

Bukatzeko, «gatazka behin betiko demokratikoki konpontzeko aukera garbia» dagoela adierazi zuten, eta eguneroko lanean «gure herria, eskualdea, gure nazio eraikitzen jardun behar dugu».

TOLOSA ▶

ETAren ustezko zulo bat aurkitu dute Aldaba Txikin

ERREDAKZIOA

Polizia iturriek jakitera eman dutenez, egun hauetan zehar Aldaba Txikin ustez ETarena den zulo bat aurkitu du Guardia Zibilak.

Dirudienez, ez dute ezer ere aurkitu bertan, hutsik zegoen, hain zuzen. Miaketa hauek martxoaren 29an eta apirilaren 1ean egindako atxiloketekin dute lotura. Hernanin ere beste zulo bat topatu dute.

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldekohitza.info
Tel.: 943 65 56 95

IBARRA ▶

**Hautesle
Zerrendak
jendaurrean**

Ibarrako Udalak herritar guztiei deia luzatu die hauteskunderi begira, «indarrean dauden Hautesle Zerrendak, apirilaren 9tik 16ra bitartean, biak barne» jendaurrean egongo direla esanaz. Epe honetan, hautesle zerrendan beharrezkotzat jotzen diren erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira.

BERASTEGI ▶

**Azpeitira bidaia
Gaztainondo
elkartearekin**

Gaztainondo jubilatutako elkar-teak Azpeitira ibilaldia antolatuta du larunbat honetarako. Tren museoa ikusi eta bertan ibiltzeko aukera izango dute. Bazkariaren ondoren, Loiolako elizan izango dira. Gaztainondo elkartearen lehen bait lehen izena emateko deia zabaldu dute.

AIZKORA ▶

**Angel Arrospide
eta Jon Rekondo
aurrera**

Asteburuan Arrospide lea-buruarra eta Rekondo leitzarraz gain, Azurmendi, Arria V eta Peñagarikano sailkatu ziren Urrezko Aizkoraren ligaxkarako. A multzoan jokatu du Rekondo, Nazabal eta Arria Varen aurka. Arrospidek, berriz, Larretxea eta Peñagarikano izango ditu aerio.

GIZARTEA ▶

**Berrobin eta
Berastegin
zerbitzuak**

Berastegin hilaren 21ean eta Berrobin 23an podologo zerbitzua izango da. Berastegin Gaztainondo elkartearen eman behar da izena. Berrobin berriz, ordua hartzeko epea 18an amaituko da eta udalera dei daiteke.

ELDUAIN ▶ ERREMONTEA

Zeberio II.a Patxaran Baines Master-eko finalean dago

Agirrezabala atzelari duela finalerdietako bi partidak irabazi ditu



Zeberio II.a aerioaren begiradapean, Patxaran Baines Master-eko finalerdietako partiduan. HITZA

ASIER IMAZ

Patxi Zeberio Patxaran Baines Master-eko finalerako txartela lortu zuen asteburuan Agirrezabalarekin batera. Txapelketa berezia da Baines Masterra, kanporaketak bi partidetaratu jokatzeaz gain, lehenengoan

frontoi laburrean eta bigarrenean luzean lehiatzen direlako. Bi partiduetako tantuak kontutan hartzen dira garailea erabakitzeko orduan.

Zeberio II.ak eta Agirrezabalak finalerdietan Matxin III - Lizaso bikotea utzi dituzte kanpoan, bi partidetan gailenduta.

Lehen partidaren zazpi tantoko errenta lortu zuten, bigarrenean errenta mantentzea nahitako zuten finalera pasatzeko. Lehen partidaren bezala, partidaren hasieran Lizaso izan zen nagusi, ondorioz urdinak 8-16 jarri ziren aurretik. Zeberio II.a jokuan sartu zen orduan mar-

kagailuan 25nako berdinketa lortuaz. Agirrezabalaren launtzaz markagailuan aurre hartu zuten eta nahiz eta ihes ez egin 34 tantura heldu ziren gorriak. Hemendik aurrera partiduko garaileak nortzuk ziren jakitea bakarrik geratzen zen ikusteko, finalerako txartela erabakia baitzegoen. 39na jarri ziren saka urdinen esku zelarrik, azken tanto honetan ordea, Lizasok huts egin zuen.

Patxi Zeberio «gustura»

Elduaingo aurrelaria «gustura» agertu zen partidaren amaieran. «Garaipen hau ongi datorkit, azkenaldian ez bainuen partida onik egin. Gaur oin arinekin eta ideia argiekin aurkitu naiz frontoian. Nahiko hotz hasi gara, euren pilotak bote handia baitzuen, baina gero pilota aldatu dugu eta hobeto aurkitu gara, partidari buelta eman eta garaipena lortu arte».

Larunbat honetan Iruñeko Labriten jokatu dute finaleko lehen partida, bigarrena berriz hilaren 21ean izango da Hernaniko Galarretan. Arieriak, berriz, Uterga eta Urrutia izango dira, Patxi Zeberioaren esanetan ez da erraza izango garaipena lortzea, izan ere, «oso indartsuak direnez, zaila izango da finala irabaztea».

BERASTEGI ▶ NATURA



Zabor bilketa eta Udalari eskaera

A. Imaz ▶ Bigarren urtez jarraian, Berastegin Aldin elkar-teak zabor bilketa eguna antolatu zuen. 15 lagun «sendo eta indartsu» elkartu ziren Arrospi inguruan garbiketa saioari ekiteko asmotan. Egunean zehar bildutakoa ikusgai jarri dute Berastegin plazan. Udalari ere eskaera zuzena luzatu nahi izan diote Aldinetik: «sortu den giroa aprobetxatuz, informa dezala nora bideratu behar diren sortzen diren zabor mota guztiak eta egin dezala ahalegin bat mendialdeak garbi mantentzeko». HITZA

LEITZA ▶ PILOTA

Abel Barriola eta Oinatz Bengoetxea, Buruz Burukoan

Asteburu honetan Eskuz Banakako Txapelketan ariko diren arren, Barriolak jada jokatu du bere lehenengo partida



Barriola eta Bengoetxea VI.a elkarrekin, joan den urtean. J. ASTIBIA

ERREDAKZIOA

Asteburu honetan abian jarri den Buruz Buruko Txapelketan Abel Barriola eta Oinatz Bengoetxea leitzarrek parte hartuko dute. Barriola jada, jokatzeko hasia da, eta ostiralean Zarautzen Galartza Varen aurka jokatu nahi duen norgehiagoka aise irabazi zuen, 22-7ko emaitza lortuz.

Asteburu honetan bai Barriola bai Bengoetxea VI.a txapelketa honen barruan lehiatuko dira. Lehenengoaren txanda apirilaren 14an izango da, larunbatean, Zarautzen, Xalaren aurka eta Bengoetxea VI.a, berriz, apirilaren 13an, ostiralean, Eulateren aurka ariko da Azkoitiko Gurean. Eulate berak ere astelehenean jokatu zuen txapelketa honetako lehenengo norgehiagoka Bergaran, Laskurainen aurka, eta ez batauk ez besteak partida

oso ona egin ez zuten arren, Eulatek 9 tanto atera zizkion Laskuraini, 22-13 amaitu baitzuten. Biak atzelariak direnez, ongi moldatu ziren sakean, baina aurrelari lanean Eulate txukunago aritu zen.

Partidarik garrantzitsuenak

Eskuz Banakako Txapelketa honen kanporaketarik garrantzitsuenak Barriola eta Xalaren artekoa izango da, larunbatean, 18:00etan, 2002. urteko txapelketa (Barriola) eta 2004. urteko txapelketa (Xala) lehiatuko baitira. Hau izango da Telecinco katean ikusi ahaliko den norgehiagoka bakarra, Bengoetxea VI.a eta Eulateren artekoa eta Koka eta Zeiraren artekoa ETB leian botako baituzte. Olaizola I.ak eta Agirrek jokatu dutena, berriz, ez dute telebistaz emango. Barriola eta Xalak jokatu duten norgehiagoka kanporaketa honetako garrantzitsuenak izan arren, Bengoetxea VI. eta Eulatek jokatu dutena izango da garrantziz bigarrena.

Barriolak irabaziz gero, Peñagarikanoren aurka jokatu luke 22an eta Bengoetxea VI.ak, berriz, Leiza pilotariaren aurka, egun berean. Barriolak Peñagarikanori irabaziko balio Irujoren aurka lehiatuko litzaiteke, eta Bengoetxea VI.a, Gonzalezen aurka. Buruz Buruko Txapelketa ekainaren 10ean amaituko da.

TOLOSA ▶

'Sud Express' bihar Leidorren, Zine-forumean

Bihar Leidorreko Zine-forumean Gabriel Velazquez eta Chema de la Peña-ren *Sud Express* filma botako dute. Ostegunero bezala, filma bi aldiz eskainiko dute, 19:15ean eta 21:45ean. Leidor Zinema. Salamankako (Espainia) zuzendari hauek Lisboa-tik Parisera doan tren batean topo egiten duten sei pertsonen istorioa kontatzen dute.

ALEGIA ▶

'El laberinto del fauno' gaur, Gaztetxean

Alegiko Gaztetxeko Zine-Klubaren barruan, bihar Guillermo del Toro zuzendari mexikarraren azkeneko pelikula botako dute, *El laberinto del fauno*, hain zuzen ere. Guillermo del Tororen film honek hiru Oscar irabazi ditu aurtengo edizioan.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Irua.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzioz Klinikak 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

TOLOSA ▶ UDALA

Aurrekontuen inguruko balantzea egin du Udalak

2006. urtean azpiegitura eta eraikinetan aurrekontuaren %42,82 inbertitu zuen

ERREDAKZIOA

Udalak 14.714.730,53 euro inbertitu ditu azpiegiturak hobetzeko eta kale eta eraikinak konpontzeko helburuarekin 2006. urtean. Diru kantitate honek Udalaren aurrekontuaren %42,82a baino gehiago suposatzen du, eta inbertisio horiek Udalez gain, Erretengibel Sozietate Publikoak egin ditu.

Udalaren arabera, udalaxeak Tolosa hobetzeko bere azpiegituratan egindako inbertisioek gora egin dute 2003. urteaz geroztik. Honen arabera, azpiegituratarako bideratutako inbertisioek gora egin dute, 1999. urtekoekin pare-

katzen badira. Urte honetan, udalaxeak 4,2 milioi euro inbertitu zituen, hau da, 2006. urtean baino 10.420.240,87 euro gutxiago (%70,81).

Egun Tolosak 17.880 biztanle ditu, eta datu hauen arabera, biztanleko Udalak 823 euro inbertitu ditu 2006. urtean. Honen arabera, eta 1999ko datuekin parekatuz gero Udalak lehenengo urtean biztanle bakoitzeko 583 euro gehiago inbertitu zituen, urte horretan 237 euro inbertitu baitzuten biztanle bakoitzeko.

Besteak beste, azkeneko legegaldian Leidor Zinema, Zerkausia, Solana kalea, hiltegiak horma eta EPA eraikina konpondu dituzte.

GUTUN@K ▶

Apeaderoan geldialdia

Zuzeneko trenak Tolosako apeaderoan geldialdia egiteko interesatuta daudenei zuzenduta:

Azaroan elkartzen hasi ginenetik, 900 sinadura bildu eta gero, Udalarekin harremanetan jarri ginen, arazo honi irtenbide bat bilatzeko. Udalaxearen arduradunekin behin baino gehiagotan bildu ginen, Agenda 21eko arduradunekin, hain zuzen ere, eta gurekin izan zuten jarrera oso ona izan zen. Pixkanaka egoera aztertu genuen eta Renfe eta Aldundiko arduradunekin hitzordua egingo genuela erabaki genuen, azken finean haiek baitira erabakiren bat har dezaketenenak.

Lehenengo hitzordura Aldundiko ordezkariak ez zuen etortzerik izan, baina Renfeko ordezkaria oso adeitsu egon zen, gure eskaerak entzuteko prest.

Hurrengo bileran denak bildu ginen. Aldundiko ordezkaria zorrotz agertu zen, eta hainbat datu eta estatistika erabili zituen bere ikuspuntua defendatzeko, hau da, Zumarraga-Donostia bitarteko zuzeneko trenak ahalik eta azkarraren izan behar zuela. Aldi berean, batzuentzako onuragarria zen bezala, beste batzuentzako kaltegarria zela onartu zuen eta eztabaida amaitutzat eman zuen.

Beste batzar bat antolatu eta aurrera jarraitzea erabaki genuen, Tolosako Alde Zaharrentzako kaltegarria delako eta guri kalte egiten jarraitzeko lehenengo urratsa izan daitekeelako. Era berean, Udaleko ordezkariak erabakia beraien eskuetan ez zegoela azaltzeko deitu zituzten, eta Aldundiari idatzi bat bidaliko zituela, egoera azalduz.

Komunikabideen arreta eskertu nahi dugu eta azkenean arazoa gure alde konpontzea espero dugu.

MARIA PILAR HERAS ▶ TOLOSA

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. *Beti lagun* txoxngilo emanaldia Rosa M^a Martinezen eskutik Kultur Etxean 11:30ean. Sarrera doan.

Ibarra. Bizi Nahi jubilatutako elkarrekin irteera antolatuta du hilaren 14rako Xabiererra: Las Campanas bodega, Sos del Rey Catolico, bazkaria Zangozan, Xabier eta Iruñea. Izen-ematea, elkartean 25 eurotan (27 euro ez bazkideek).

Tolosa. Aurten Kazkabarra Taldearen 25. urteurrena da, hori dela eta, urte hauetan taldearekin harremana izan dutenentzat afora antolatuta du apirilaren 21erako. Hala, txartelak eskuragai dira Ikatza, Raku eta Mescal tabernetan.

Tolosa. Harizpe jubilatutako pentsionista elkarrekin Saloura oporraldia antolatuta du maiatzaren 27tik ekainaren 19era. Pentsio osoa hiru izarreko hotelean 381 euro (ez bazkideek 387). Informazioa eta erreserbak, egoitzan.

Tolosa. Iturriza jubilatutako elkarrekin (Euskal Herria plaza) Andorrara irteera antolatuta du maiatzaren 7tik 10era. Prezioa: 170 euro (ez bazkideek 175). Informazioa eta izen-ematea elkartean (943 698330).

KIROLA

Anoeta. Desafioa aizkolari koadrilei. Anoetako jaietan, ekainean, herriko aizkolariak Hernialde, Asteasu, Alkiza eta Iruñeko aizkolari koadrilei apustua egiteko desafioa bota diete, bi kanaerdiko eta bost oinbiko enborrekin, banaka edo binaka. Izen-ematea, 943 651497 telefono zenbakian.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Joan den astean ospatutako Haur Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira, *Sirenbaxoa* ipuinari buruzko erakusketa ikusgai da Errota Haur Liburutegian hilaren 23a arte. Ipuinek ikastetxeetan egindako marrazkiekin osatua dago hau.

Tolosa. Alberto Letamendiren *Migraciones: sonidos desiertos* pintura



Hiru arrautza arrunt batean

TOLOSA ▶ Arrautzari omenaldi berezia egin diote egun hauetan Tolosan. Eta kasualitatez festaren usaia nabarituta edo, 180 gramo inguruko bi arrautza ipini ditu euskal oilo batek. Hau da, gai-nontzeko oiloen hiru arrautza arruntentzainak. Urtero, Inma Apaolaza eta bere familiakoak Errioxara joaten dira Aste Santuak igarotzera.

Eta bidaia bakoitzean, sei oilo eramaten dizkiete bertako adiskide batzuei. Aurten ere, ohiturari jarraituz oporretara joan dira beste oilo batzuk eramanaz. Hala, hara iritsi eta ezusteko (<handi>) honekin topatu dira. Izan ere, joan den urtean eramandako oiloetako batek bi arrautza erraldoi hauek jarri ditu. **ESTI EZEIZA**

erakusketa ikusgai da Aranburu Jauregian, hilaren 14ra arte.

Tolosa. Juan Ramon Llavori argazkilarik Nepalengandako argazkiekin osatutako *Las miradas de la tierra* erakusketa dauka Aranburu Jauregian, Amalur jardunaldien barruan antolatuta dute hau. Ikusgai izango dira argazkiak hilaren 14ra arte.

Alegia. Isabel Azpiroztekin egindako margolanak daude ikusgai Alegiko jubilatuen tabernan. Apirilaren 16ra arte izango dira bertan, asteartetik igandera bitarte, egun osoan zehar.

ZINEMA

Alegia. *El laberinto del fauno* filma Espainia-Mexiko-AEBn grabatutakoa da. Guillermo del Toroena da (2006).

Tolosa. Bihar, Zine Forumean Gabriel Velázquez eta Chema de la Peña zuzendarien *Sud Express* filma izango da ikusgai Leidor antzokian izango dira bi saioak, 19:15ean eta 21:45ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Lekunberri. Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.
Tolosa. Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.

IRRATIA

Txolarre irrateria (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
 20:00-21:00. *Irauli uhinak*.
 21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.


AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Olatz Etxeberria
 Mendizabal (Berastegi).
 Zorionak familiaren partetik.



URTE ASKOAN
 Naroa Leonet Tadeo.
 Aste honetan 7 urte. Muxu handi bat ebekoen partetik.



URTE ASKOAN
 Garazi Altuna Aburuza (Villabona). Gaur urtebete. Muxuak familiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZaren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZaren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa